

<b>PRESTAKUNTZA ARLOA:</b>	<b>ERABILERA PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA</b>
<b>MODALITATEA:</b>	<b>AURREZ AURREKOA</b>
<b>HIZKUNTZA:</b>	<b>EUSKARA</b>

### 3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

#### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Apirilak 9,11,16,18,23 eta 25	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	28. gela Eusko Jaurlaritzako Donostia-San Sebastian kalea, 1 Vitoria-Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	15 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:00-11:30
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Martxoaren 9ra arte	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Martxoaren 19ra arte
<b>IKASLE KOPURUA</b>	15	<b>HARTZAILEAK</b>	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 2. HE gaindituta izatea.
<b>IRAKASLEA</b>	Labayru	<b>MATERIALA</b>	Ikastaroan banatuko da
<b>DISEINUA</b>	Labayru		

#### ZER LORTU NAHI DA

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	3. HEko idazmen-probarako idatziak sortzen trebatzea. Idatzi horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
<b>HELBURU ZEHATZAK</b>	Azterketaren aurkezpena egin. IVAPeko idazmen-probaren balorazio-irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna. Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak landu. Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin. Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin. Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarrizkoak diren akats larriak aipatu, aholkuak eman eta autozuzenketa bultzatu.
<b>GAITASUNAK</b>	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da 3. HEko idatziak sortu behar dituenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

## 3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

#### METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Talde txikietan lan egiten saiatuko gara.
- Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.

#### PROGRAMAZIOA

##### 1. saioa:

C1 mailaren deskribapen orokorra egin.  
3HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.  
Iritzi-artikulu bat egin, azken eskola-egunean zuzentzeko.

##### 2. saioa:

IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.  
Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak.  
Iritzi-artikuluaren zirriborria nola egin azaldu eta ariketak egin.  
Etixerako: gaia eman, eta horren gaineko iritzi-artikulu idazteko zirriborria egin.

##### 3. saioa:

Etxean egindako eskema partekatu, komentatu, hobetu, zuzendu... denon artean.  
Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.  
Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

##### 4. saioa:

Gutuna: gutuna eta ofizioaren arteko desberdintasunez ohartarazi, gutunen osagaiak eta ezaugarriak azaldu eta ariketen bidez landu: zirriborria, agurrak, erregistroa, estilo-aholkuak...  
Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.  
Etixerako: gutun-eredu desegoki bat eman eta zuzendu.

##### 5. saioa:

Etxean zuzendutako gutuna, guztion artean komentatu edota zuzendu.  
Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.  
Aprobetxamendu-proba.  
Etixerako: lehen eskola egunean egindako norbere iritzi-artikulu zuzendu.

##### 6. saioa:

Aprobetxamendu-probaren zuzenketa eta hobetzeko proposamenak.  
Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin erkatzeko.  
Azken gomendioak eta birpasa ariketak.  
Balorazioa.

### 3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

#### EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ebaluaketa egiteko saioan eskatutako proba neurtu eta baloratuko da.

#### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

#### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

145 €

#### PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.